

Proiektu honetan behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusien baldintza ekologiarekin erantzukizunaren bat izatea da, izan ere, hori da gure izatearen xedea. Gizarte eta ingurumen erantzukizunaren alde egiten dugu eta gurekin lan egiten duten erakunde guztiek filosofia berdina izatea ezinbestekoa da.

Hasteko, Elektrobus enpresarekin elkartuko gara garraioa antolatzeko. Elektrobus Euskal Herriko enpresa bat da non bidaiak bus elektriko batean eskaintzen dizkigu kutsadura gutxitzeko asmoz. Poluzioaren arazoaren zati garrantzitsu bat, kotxeekin sortzen da; horren ondorioz, garraio elektriko bat eskaintzea da gure helburua, horrela gonbidatu guztiek elkarrekin joango dira. Gainera, Elektrobus-ek eskaintzen dituen prezioak oso ekonomikoak dira, eta ezkontza merkeagoa izango da.

Bestalde, Elikarriko-rekin ere elkartuko gara. Elikarriko-k janari jasagarria eta 0 kilometrokoa eskaintzen digu. Horrez gain, hainbat menu aurkezten dizkigu, eta haien artean aukeratu ahal dugu gure bezeroen nahien arabera.

Musikarri enpresa izango da gure ezkontzetan musikaz arduratuko dena. Bikoteen musika nahiak oso anitzak izan daitezkeenez, enpresa horrek egiten duena da maitaleen gustuen araberako musikari bat ala beste bat bilatzea. Jazz, DJ-ak, pianistak eta abarrekin kontaktuan daude, beraz, aukera amaigabeak daude. Horrez gain, bezeroek nahiago badute haien musika erabiltzea, pen drive baten bidez edo guri bidaliz haien musika erabaki ahalko dute, haiek direlako egun horretako pertsona garrantzitsuenak.

Elkartuko garen beste enpresa baten izena Lokarri da, eta ezkontzaren eta ezkontza-ospakizunaren osteko festa non egingo diren antolatzen du. Enpresa honek hainbat lokal desberdinekin harremana du, eta gonbidatu kopuruaren arabera, berak uste duen hiru leku aproposenak aukeratzen ditu eta bikoteari aurkezten dizkio. Elizetan ezkondu nahi diren bikoteak ere badira, eta enpresa honek ere eliza batzuekin dauka harremana, horrela guztion nahiak asetu ahalko ditugu.

Soinekoak diseinatzen dituen enpresa batekin elkartu gara, Soinekarri, eta enpresa honek baztertu diren oihal zatiak biziberritzen ditu eta itxura berri bat ematen die. Soineko tradizionalak dira haien espezialitatea, hau da, soineko txuriak, baina, beste motatakoak ere diseinatzen dituzte, baita ere gizonezkoentzat eta gonbidatuentzat trajeak ere. Soineko hauek alokatzen dira, horrela beste pertsona batek erabili ahalko du eta ez da oihal hori galduko.

Azkenik, ingurumen eta jasangarritasunari buruzko aditu autonomoekin hitzarmenak ditugu beti gure planeta gehien errespetatzen duten aukerak autatzeko eta gure enpresaren alde hori ahalik eta hoberen asetzen saiatzen gara, esan dugunez, iraunkortasuna suspertzeko. Gainera, aditu horiek ematen ditugun ikastaroetan irakasle bezala parte hartzeko eskaini dira eta natura, ekologia eta hala nolako gaiak ikasi nahi dutenei edo interesatzen dienei ingurumena gehiago zaintzen erakutsiko diete.